

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### GIZA BALIABIDEEN SAILA

#### 2020ko ordainsari-igoera

2020ko soldata-igoera onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko martxoaren 6an egindako ohiko bilkuran.

Sektore publikoko ordainsarien arloko premiazko neurriak onetsi zireneko 2020ko urtarrilaren 21eko 2/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikuluan xedatzen denez, sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileen ordainsariak ezin dute izan ehuneko 2tik gorako igoera globalik, 2019ko abenduaren 31koen gainean, alderatzen diren bi aldean arteko homegeneotasun-terminoetan, dela langile-kopuruei dagokienez, dela horien antzinasunari dagokionez, eta kontuan hartu gabe, horri dagozkionetarako, ekintza sozialaren gastuak, zeinek, oro har, ezingo baitute inongo igoerarik izan 2020an, 2019koen aldean. Horri dagokionez, ulertzen da ekintza sozialaren kontzeptuan sartzen diren gastuak egindako lanagatik ematen diren ordainez bestelako hobari, osagarri edo hobekuntzak direla, zeinen xedea baita sektore publikoaren zerbitzura diharduten langile horien zirkunstantzia pertsonalen ondorio diren zenbait behar asetzea.

Ordainsari-igoera parte sozialarekin negoziatu zen, 2020ko otsailaren 11ko negoziazio-mahaian.

Honela dago jasota Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legean: "Baldin eta akordiorik lortzen ez bada negoziazioan, Herri Administrazioetako gobernu-organoen esku egongo da funtzionarioen laneko baldintzak ezartzeko zeregina betetzea, betiere, artikuluko honetako 11., 12. eta 13. paragrafoetan jasotako salbuespenak salbuespen izanik."

Igoera hori martxoko nominan aplikatzea aurreikusten da, eta, horrenbestez, erakunde autonomoari informatzen zaie, beren zuzendaritza-kontseiluetan onar dezaten, behar izanez gero, Estatuko aurrekontu orokorretan jasota dagoen langileentzako igoera ekonomiko hori aplikatzea.

Hortaz, aurreko paragrafoetan adierazitakoa kontuan izanik, Toki Jaurbidearen Oinarrizko arautzen dituen 7/1985 Legeak —abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua— 127. artikuluan aitortzen didan eskumena dela medio, eta Giza Baliabideen Saileko zinegotzia naizen aldetik alkateak 2019ko ekainaren 21ean emandako eskuordetzea baliaturik, hauxe proposatzen diot Tokiko Gobernu Batzarrari,

#### Erabaki-proposamena

Estatuko aurrekontu orokorretan baimendutako soldata-igoera onestea, 2020rako baimendutakoaren arabera, hots, ehuneko 2ko igoera 2019ko abenduaren 31n indarrean zeudenen gainean, urtariletik aurrerako eraginarekin. Igoera hori 2020ko martxoko nominan aplikatzea aurreikusi da.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko martxoaren 10ean

*Alkatea*

**GORKA URTARAN AGIRRE**